



CPEIPS LA ASUNCION HLBHIP  
MIRA-CRUZ  
DONOSTIA – SAN SEBASTIAN



Familia agurgarriok:

**Apirilak 22an, arratsaldeko 16:45etan** Hitzaldi Aretoan egingo den bilerarako deialdia luzatu nahi dizuegu, **“DIPLOMA DUALA/HIGH SCHOOL DIPLOMA”**; **aurkezteko.**

Ikastetxetik eleaniztasuna sakondu eta indartzeko misioan, AEBetako hezkuntza erakunde eta titulazio bikoitzeko nazioarteko programaren sortzailea den “Academica Corporation” erakundearekin sinatutako hitzarmenari esker, gure ikasleei **DIPLOMA DUALA/ BATXILERGO DUAL AMERIKARRA** egiteko aukera eskaini nahi diegu

Hitzarmen honen bidez, DBHko 2. mailatik aurrera, nahi duten ikasleentzat **Espainiako eta AEBko Batxilergoko Titulazio Bikoitzeko** programa inplementatu nahi dugu.

Programa honi esker, gure DBHko 2. mailatik gorako ikasleak aldi berean matrikulatuta egon ahal izango dira gure Ikastetxean eta AEBetako High School batean, bi ikasketak eginez denbora berean.

**Diploma Duala programa, % 100 online egiten da, eta eskolaz kanpoko programa bat izango balitz bezala.** Ikasleek AEBetako **6 kreditu** egin beharko dituzte guztira DBH eta Batxilergoan zehar. Ikastetxean egiten dituzten ikasketak baliozkotzearekin batera, Espainiako Batxilergoko titulazioaz gain, Ameriketako Estatu Batuetako “High School” titulazioa ere lortuko dute.

Asko dira “Batxilergo Dualeko Diploma” programak ikasleei eskaintzen dizkien balio eta abantailak, hiru helburu nagusi azpimarratuz:

1. Murgiltze Linguistikoa, % 100 ingelesez: kurrikularrak, irakasleak, azterketak eta lanak.
2. Murgiltze teknologikoa, % 100 online: plataformak, tresnak, komunikazioak, etab.
3. Murgiltze pertsonala: kudeaketan, ahaleginean, erantzukizunean, antolaketan eta ikasleak ikasteko eta lan egiteko duen heldutasuna.

Ekimen berri hau zuen interesekoa izatea espero dugu, eta zuen zain geratzen gara bilera egunerako.

Adeitasunez,

ZUZENDARITZA ETA IRAKASLE TALDEA

Donostian, 2026ko apirilaren 13an.